

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

2405

141/2022 EBAZPENA, maiatzaren 5ekoa, Uribeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez M.^a Asunción Urdampilleta Hurtado de Saracho andrea kendu egiten den Zuzendaritzako Idazkari kargutik, erretiroagatik, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Uribeko Erakunde Sanitario Integratuan.

Otsailaren 12ko 47/2018 Ebazpenaren bidez, M.^a Asunción Urdampilleta Hurtado de Saracho andrea izendatu zen Zuzendaritzako idazkari, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Uribeko ESlan.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak ikusita, Zuzendaritza Gerentzia honek

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– M.^a Asunción Urdampilleta Hurtado de Saracho andrea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Uribeko ESlko Zuzendaritzako Idazkari kargutik kentzea, erretiroagatik, eta eskerrak ematea egindako lanagatik.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2022ko maiatzaren 15ean izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen honen berri ematea interesdunari eta Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESlari.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Urduliz, 2022ko maiatzaren 5a.

Uribeko ESlko zuzendari-gerentea,
JESUS MANUEL SUAREZ ROMAY.